

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Asteazkena, 2011ko martxoaren 23a. VIII. urtea. 2.197. zenbakia. [www.tolosaldea.hitza.info](http://www.tolosaldea.hitza.info)

## Brontze Aroko aztarnak aurkitu dituzte Amezketako Arritzagako meategian

Arkeolan fundazioko eta Felix Ugarte elkarteko kideen esanetan, Aralar mendateko arrastoak «garrantzitsuak» eta «konplexutasun tekniko handikoak» dira

Udalak ere indusketa lanak sustatu ditu, diru laguntzak bideratuz; beste eremu batean etxola bat eraiki berri dute, XX. mendeko meatzaritza tresnak erakusteko ◊6

Iñaki Gil de San Vicente Pentsalari marxista

### «Krisi kapitalistak irtenbidea izan dezan, langilea borrokatzera behartuta dago»

Herria Abianen Sozializazio Astearen baitan, gaur, Tolosan hitzaldia egongo da 19:30ean ◊4



Iñaki Gil de San Vicente Donostiako bere etxean. J. MINTEGIAGA



Lubakiaren barrualdea ikusi daiteke lehen irudian, eta kobre minerala, bigarrengoa. FELIX UGARTE ELKARTEA

### Larramendiko zubiarekin N-1 eta GI-3650 errepideak lotuko dituzte

Tolosako Arriarango gasolindegia ondoan, zubiak gain, birbilgunea ere egingo dute ◊3

### Tolosako zinema eskaintza Topic-era zabalduko da

Udalak eta Autowag Tolosa kontzesionarioak hamar urterako hitzarmena sinatu dute; Aste Santutik aurrera Txotxongiloen Nazioarteko Zentroan filmak ikusi ahal izango dira ◊2



HITZAK harpidedun batentzat **sarrerak** pareta du

Euskaraenea 2011ren baitan **Joseba Tapia**ren kontzertua


Martxoak 25 • Ostirala 20:30ean • Tolosako Topic-en



HITZAK harpidedun batentzat **sarrerak** pareta du

#### Bertso afaria

Martxoak 25 • Ostirala • 21:00etan Villabonako Irrintzi Elkartearen



HITZAK harpidedun batentzat **sarrerak** pareta du

**Quebec-eko Nicolas Pellerin et le Grands Hurleurs** taldearen kontzertua

Martxoak 27 • Igandea • 19:00etan Zizurkilgo Atxulondo Kultur Etxean



sarrerak

## Beotibarren 75. urteurrena ospatuko du Andia Kultur Elkarteak

### I. Urkizu

Andia Kultur Elkarteak Beotibar Frontoiaren eta Kafearren 75. urteurrena ospatu nahi du, horretarako zenbait ekitaldi antolatuz.

Alde batetik, *Fronton kafetegia, 75 urteko historia* izeneko argazki erakusketa izango da Fronton kafetegian bertan, gaurtik hasita, hilabetez. Bestalde, Ander Letamendiak *Pilota atzo eta gaur* hitzaldia eskainiko du datorren martxoaren 31n, Fronton jatetxean, 20:00etan.

### Frontoi baten bizitza luzea

1690 inguruan Plaza Berria zen herriko gunerik biziena, eta mitin politikoetatik hasita, zezenen soka eta, batez ere, pilota partidak ospatzen zituzten bertan. XIX. mendearan erdialdean, ordea, Tolosa asko hazi zen, eta Plaza Berria txiki geratu zitzaizen herriarre; zezenketak eta pilota-jokoak beste eremu batzuetara eramateko beharra sortu zen. Hasiara-hasieratik, arrakasta izan zuen garai batean San frantzisko komentuarienak izandako baratzetan frontoi bat eraikitzearen ideiak, eta bide horretan, 1861ean amaitu zituzten frontoiaren eraikitze lanak.

1890 inguruan, tolosarrek frontoia eraberritu zuten, ikuslegoarentzako leku zabalagoa egokitu; orduan hartu zuen eraikinak Beotibar Frontoia deitua. 1923an Berazubiko estadioa eraiki zuten arte, Beotibar frontoi irekian askotariko kirol jarduerak antolatu zituzten, hitzaldi politiko eta karitatezko ekitaldiekin batera.

Espainiako gerraren bezperetan, 1935. urtean, Tolosako hainbat bizilagun bildu ziren, udal korporazioari frontoi itxi bat eskatzeko. Udal ordezkariak eskaera onartu zuten. Berritze lanen ondorioz, aurreko frontoiko eremu bat libre geratu zen, eta ostalaritzari eskeini zioten txokoa, saio-kafe bat irekiz.

# Tolosako zine eskaintza zabaldu egingo da Aste Santutik aurrera, Topic-en

Udalak Autowag Tolosa kontzesionarioarekin hamar urterako hitzarmena sinatu du, zinea diruz laguntzeko

### Itzea Urkizu

Tolosako zine eskaintza zabaldu egingo da Aste Santutik aurrera, udalak Autowag Tolosa kontzesionarioarekin sinatu berri duen akordioa dela eta. Leidor aretoaz gain, Topic ere zinemaz gozatzeke gune bilakatuko da.

Jokin Bildarratz alkateak berri «berezi eta pozgarria» dela adierazi du, eta akordioa egungo egoerak bultzatu duela dio: «Egoera ekonomiko honek administrazioak finantza iturrien bila abiatzea bultzatzen du, eta guk iturri hori aurkitu dugunez, aditzera eman nahi dugun hitzarmen hau sinatu

tuz». Autowag udalarekin inplikateaz gain, herritarrekin ere inplikatu dela nabarmendu du Bildarratzek: «Enpresaren esfortzua azpimarratzeko modukoa da, eta egoera honetan balio bikoitza du».

Modu honetara, Autowag Tolosa kontzesionarioak hamar urtez lagunduko dio Tolosako kulturari. Enpresako arduradunek nabarmendu dutenez, Tolosarekin harremana izan nahi dute, eta epe luzerako, gainera: «Herriaren bizitzan parte hartu nahi izan dugu». Bide honetan, urtero 6.000 euroko diru-laguntza emango dio Autowag Tolosak udalari, zine emanaldiak finantzatzeko.

### Topic ere, zinemaren gune

Leidor berritu zenez geroztik, zinemak Tolosan «gorakada handia» izan duela azpimarratu du Bildarratzek, baina Topic-ek behar ere zine proiektioak burutze-

ko «oso azpiegitura ona» duela dio. Beraz, herriko azpiegiturak probeste aldera, hitzarmen honekin batera Topic Tolosako zine programazioaren baitan sartuko dute.

Jarleku kopurua Leidor areto-koa baino baxuagoa denez, harre- ra handia duten filmeekin saio gehiago antolatuko dituzte.

Topic-en aurpegi berri honekin beraz, Tolosan zine analogikoaz gain zine digitalaz gozatzeko aukera ere izango da.

### Aste Santurako programazioa

Hamabost egun barru Aste Santuko oporrak iritsiko dira, eta Tolosako Udalak zine programazio berria iragarriko du oporrak herrian pasako dituzten tolosarrentzat. Ostegun Santuan hasita, Topic-en zine digitala estreinatuko izango da Tolosan. Horretaz gain, haur eta gazteentzat programazio berezia ere izango da.



Manuel Etxarri, Jokin Bildarratz eta Juan Garikano hitzarmena sinatzen. I. URKIZU

## → Laburrak

### Inauterietako balantzea egiteko bilera egingo dute

**TOLOSA** > Amaitu berri diren Inauterien inguruko balantzea egin nahi du Tolosako Udaleko Jai Batzordeak, jendaurrean. Edozein herritarrentzat bilera irekia antolatu dute horretarako, gaur, arratsaldeko 19:00etan, Kultur Etxean.

### Intxur eta Basagaingo indusketak hizpide

**TOLOSA** > Aulas Kutxa ekimenaren baitan, eta Nazaret Zentroaren eskutik, hitzaldia izango da bihar, hilaren 24an, Tolosan. 'Excavaciones de Intxur y Basagaingo' deiturapean, Xabier Peñalver historiaurrean doktoreak eskainiko du konferentzia. Burdin Aroan espezialista da Peñalver, eta bihar, Antonio Maria Labaien Kultur Etxean, arratsaldeko 19:30etan bertaratuko nahi duen edonorentzat arituko da hizketan.

## Errepublika omenduko dute apirilaren 14an

### I. Urkizu

Jesus Artetxe, Antxon Bandres, Garbiñe Biurrun, Jesus Mari Penilla eta Vega Perez tolosarrek bi ekitaldi antolatu dituzte apirilaren 14rako, errepublika omentzeko helburuarekin. Frankismoak hildako, espetxeratutako eta erbesteratutakoek eskainiko diete, batez ere, ekimena. Apirilaren 14an, beraz, 20:00etan lore eskaintza izango da hilerriko monumentuan, eta 21:00etan afaria egingo dute Fronton jatetxean. Omenaldian parte hartzeko 38 euro sartu behar dira Kutxako 2101 0067 22 0012793154 kontuan, izena eta abizenak jarriz. Argibide gehiagorako: 664 70 63 56.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Pirinioetara irteera egingo dute Oargikoek asteburuan

### I. Urkizu


Datorren asteburuan Pica d'Estats (3.143m) mendira irteera egingo dute Oargi mendi elkarte-koek.

Ostiralean, arratsaldez irtengo dira Tolosatik, eta bidean afaldu

eta gero, Salardun herri frantziar- rreko aterpe batean egingo dute lo. Larunbatean, berriz, goizeko 05:00etan jeikiko dira, ordu bete-ko bidaiaren ondoren Areu- ra iristeko. Valferrerako aterpetxe- raino igoko dira, eta hemendik bospasei orduko igoera egingo

dute, eta jeitsi ondoren katalunia- ko Sort herrira joango dira autoz, gaua pasatzera. Igandean, egun librea izango dute atseden hartze-ko, Tolosara itzuli aurretik.

Izena eman nahi duenak [info@oargi.org](mailto:info@oargi.org) helbidera idatzi edo 688 69 86 42-ra dei dezake.



Larramendi kaleko zubi eta biribilgune berriaren plano. HITZA

# Ibilgailu, oinezko eta txirrindularientzat izango da Larramendiko zubi berria

Diputazioak Arriarango proiektua martxan jartzea erabaki du, eta Gipuzkoako PSE-EE kritikoa agertu da

Asier Imaz Tolosa

Tolosako Arriarango gasolindegian ondoan zubia eta biribilgunea egingo dituzte. Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak hitzarmena sinatuko dute aste honetan, lanen finantzaketa eta obren nondik norakoak zehazteko.

Proiektua ez da berria, baina Foru Aldundiak orain erabaki du martxan jartzea. Hainbat komunikabideren arabera, zubiaren kostua ia sei milioi eurokoa izango litzateke. 34 metro diametro izango dituen biribilgunea eraikitzeke berri, udalak 363.440 euro, eta bereak dituen lurrik jarriko ditu.

## Oinezkoentzat ere bai

Oria ibaiaren gaineko zubi berriarekin, N-1 eta GI-3650 errepideak lotu nahi dituzte. Horrela, Hernialdera eta Anoetara joateko Tolosatik barrena ez litzateke ibili behar.

Zubiak 45 metroko luzera izango luke, eta 14,5eko zabalera. Bertatik ibilgailuak, oinezkoak eta txirrindulariak igaro ahalko dira.

Lehen datuen arabera, zubiak Oria ibaian ez luke hankarik edukiko. Hau da, sostengu oinarriak ibaiaren ertzean egongo lirateke.

Arriarango zubi eta biribilgune berriaren lanekin aurten hastea espero da.

## PSE-EEren salaketa

Gipuzkoako PSE-EEko kideak Tolosako biribilgune eta zubi berriaren lanen hasierarekin gustura agertu baldin badira ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarreraren hauteskunde kutsua ikusi dute. Julio Astudillo bozeramalearen esanetan, «proiektu honek gutxienez 10 urte ditu. Orain Markel Olanok hauteskunde aurreko

garaia aprobetxatu nahi du bere buruari publizitatea egiteko. Benetan lotsagarria da Ahaldu nagusiaren jarrera. Herritarren eskariekin eta beharrekin jolasten ari da».

Kritika politikoa erabat alde batera utzi gabe, euren poza ere agertu nahi izan dute Gipuzkoako PSE-EEko kideek: «Denbora luze lotan egon ondoren, proiektua oinez hasi dela dirudi. Aste honetako hitzarmenak, benetan esaten dugu, proiektu on baten isla izatea nahiko genuke. Horrela, gure ustez, Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektu honekiko izan duen erabilera politikoa garbituko luke».

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Garajea.** Ibarren garaje itxia salgai, Idoiaga plazan. Kotxe txikia, motorra, ... edo trasteleku bezelako oso egokia. Prezio interesgarria. Deitu ondorengo telefonora: 657 70 39 53.

■ **Altzariak.** Egongelako altzariak salgai. Armairua eta mahai eder bat bere banku eta aulkiekin. Argazkiak ikusgai, [www.iragarkilaburrak.com](http://www.iragarkilaburrak.com) web orrialdean. Interesatuek deitu 629 12 28 61 telefono zenbakira.

### GARBIKETA

■ **Auxe Garbitasunak.** Alfon-brak, bulegoak, etxeak, eta antzekoak garbitzeko prest gaudete. Interesa dutenek dei dezatela inongo konpromisorik gabe 638 94 46 04ra (Gurutze).

### BESTELAKOAK

■ **Belardia.** Segan ibiltzeko moduko belaze bila gabiltza. Ikas-teko eta entrenamenduetarako erabiltzen dugu. Belarra mozteko duenak deitu 634 45 91 10 telefonora.

## Irudia o Urkizu



## MIKEL LOPETEGI GOGOAN

1988ko martxoaren 2an, Herrerako espetxean (Espainia), hilda agertu zen Mikel Lopetegi euskal preso; igandean, omenaldia egin zioten Urkizun 60 lagun inguruk. Bere omenezko monolitoaren aurrean, bertsoak, lore eskaintza, eta ekitaldi politikoa egin ziren. HITZA

## Tolosako Udalak ikastolen hiru jai eta Korrika lagunduko ditu

Kilometroak, Nafarroa Oinez, Herri Urrats eta Korrikari milana euroko laguntza ematea erabaki dute

A. Imaz Tolosa

Euskara eta Hezkuntza batzordearen proposamenarekin bat egin zuen iragan astean gobernu batzarrak. Bertan hartutako erabakien arabera, Nafarroa Oinez, Kilometroak, Herri Urrats eta Ko-

rrika diruz lagunduko ditu Tolosako Udalak, milana euroekin.

Gobernu batzar honetan, beste hainbat erabaki ere hartu ziren. Besteak beste, udaleko Hirigintza sailen aholkularitza lanetan dabilen Sociedad Earki 2007 SLP-rekin lanean jarraitzea. Udalak eta Earkik 2009ko maiatzean sinatu zuten bi urteko akordioa. Gauzak horrela, hitzarmena aurtengo maiatzean amaituko da. Enpresatik luzapena eskatu zuten eta gobernu batzarrak baieztokorekin erantzun dio. Ondorioz, hitzarmena 2013an amaituko litzateke.

**iragarkilaburrak.com**  
euskarazko iragarki laburren ataria

*martxoaren 23etik aurrera,  
iragarkilaburrak.com-en papereko  
edizioa Gipuzkoako eta Bizkaiko  
HITZA-n aurkituko duzue.  
Papereko edizioan ordaindutako  
iragarkiak soilik argitaratuko dira*

### tarifak:

*Iragarki bat: 5 euro  
Bi iragarki: 9 euro  
Hiru iragarki: 12 euro  
Bost iragarki: 17 euro*

*BEZA barne*

*asko zabaldu gutxi ordainduta*

'iragarkilaburrak.com' webgunean iragarki gutziak doan

**Iñaki Gil de San Vicente** > Pentsalari marxista

Herria Abian plataformak larunbatean amaituko den Sozializazio astea antolatu du. Gaur, 19:30ean, Tolosako kultur etxeko areto nagusian interes handia sortu duen hitzaldia egongo da

# «Ekonomia demokratizatu nahi baldin bada, Langile Estatu behar da»

**Jon Mintegiaga** Tolosa

Iñaki Gil de San Vicente (Donostia, 1952) pentsalari marxistak hitzaldia eskainiko du gaur 19:30ean. Tolosako kultur etxeko areto nagusian *Kapitalismoaren krisia eta irtenbide posibleak* gaiaren inguruan ariko da. **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI** eskainitako elkarrizketan, bertan espostatuko dituen zertzelada batzuk aurreratu ditu.

**Tolosan eskainiko duzun hitzaldia-  
ren goiburuari erreparatu, krisiak  
ba al du epe motz edo ertaineko ir-  
tenbiderik?**

Nahiago nuke kontrakoa esatea baina epe motzeko irtenbiderik ez du, egun bizitzen ari garen krisia, aurrekoekin alderatuta ezberdina baita, sakonagoa. Aurreko krisietan ohikoak izan diren arazo sozioekonomiko eta politiko-militarrei, ingurumenarena eta krisi energetikoa gehitu behar zaie, izan ere, natura «merkantzia» bezala erabili da, merkatuaren mesedera, agortuko ez balitza bezala.

Krisiaren irtenbidea prozesu luzea izango da, sozialismoaren bidean borroka zehatz eta zatikako irtenbide ezberdinen bateratzeak ekarriko dutena.

**Prozesua mailakatua izango da, be-  
raz.**

Lau irtenbide fase aurreikusten ditut: Berehalakoa, burgesiaren egungo erasoei erantzutea da, galtzen ari garen eskubide demokratiko, sozial eta sindikalak berreskuratzea. Hauek erdiestea beharrezkoa da hurrengo faseei ekiteko. Bigarrenagoa, kapitala ahultzen duten errebindikazioak sozializatzea da. Lokabetzearen bidean urratsak ematea, Herria Abianek defendatzen dituen errebindikazio ezberdinak adibidez (lanaren eta aberastasunaren banaketa etab.). Hirugarrenak krisi ekologikoari irtenbidea eman beharko lioke, kapitalismoa mundua txikitzen ari baita. Azkena, kapitalaren ukazioari nola aurre egin izango da. Errebindikazioak handitzen joan ahal eta propietate pribatua edo estatutuaren ia zerauztzen ipintzen joan ahal, burgesia gero eta oldarkorragoa bihurtuko baita.

**Diozunaren arabera, krisiaren irten-  
bidea ezberdina da langilearentzat  
eta enpresariarentzat.**

Noski. Krisi kapitalistak irtenbide sinple eta lasaierik ez du. Langileak, kapitalismoak kaltetutako beste sektoreekin batera, borrokatzera behartuta daude. Horrek, jendarteko sektore zabaletan kontzientzi maila handitzea eskatzen du eta errebindikazio zehatzen alde antolatzea, hala nola sektore publikoaren defentsa, soldaten igoera edo langabeziaren etetea. Baina krisia hain sakona eta mundutiarra izanik, perspektiba orokorra izatea ere eskatzen du, ikuspegi internazionalista izatea.

Burgesiak bestalde, galerekin

**«Krisi kapitalistak  
irtenbidea izan dezan,  
langilea borrokatzera  
behartuta dago»**

amaitu eta etekinak handitzeaz gain, estatu inperialista boteretsuenetako ekonomiak behintzat, zabalte fase batean ipini nahi ditu. Zaila dute ordea, gaine-koizpen industrial handia baita kontsumo gaitasun urriarekin alderatuta.

**Herria Abianek lau errebindikazio  
nagusi aldarrikatzen ditu eta lehen-  
bizikoa «lanaren banaketa» litzate-  
ke. Eskuragarria al da?**

Errebindikazio hau ia jendarte langilea bezain zaharra da, klase zapalduak badakite eta, langabezia, lanean dauden langileentzako ere mehatxua dela. Baina erreformistek eta zenbait enpresa erakunde «aurrerakoiek» errebindikazio hau desnaturalizatu egiten dute, lan banaketa horren atzean soldaten jaitsiera, turno aldaketak edo oporren gutxitzea onartuz, beti ere langilea engainatuz eta alienatuz.

Lan banaketa lan baldintza berak mantenduz egin behar da, ahal bada lan errotazioak bultzatu, lana eta ikasteko aukera uzartuz, eta lanaren feminizazioa bultzatuz. Horretarako, haurtzaindegia, umeak eskoletara joteko autobusak etab. bermatu behar direlarik.

Bai, errebindikazio hau posible

da baina langile klaseak burgesia zapaltzailea garaitzeko edo murrizteko duen gaitasunaren araberakoa izango da, klase borrokaren emaitzaren arabera, alegia.

**Bigarren aldarrikapenak «aberastasunaren banaketaz» dihardu. Ideia honi jarraiki, sindikatuetako ordezkari askotan entzun diegu «dirurik ez dela falta, lapurrak daudela so-  
bran». Horrela al da?**

Lehen momentu baterako, guztiok ulertzeko, erantzun baliogarririk bat da hori, baina arrisku bat ezkututzen du.

Burgesiak zuzenean ez dio langilegoari lapurretarik egiten. Langileak kapitalistarekin kontratua sinatzen du, X ordukoa, eta kapitalistak sinatutako soldata ematen dio. Horren atzean ariketa bat ezkututzen da ordea; langileak soldatan jasotzen duena baina gehiago ekoizten du, plusbalia alegia, baina ez du kobratzen, hortik kapitalisten etekinak. Egungo sistemak hori ahalbideratzen du.

Estatuak dio ez duela dirurik zerbitzu sozialak mantentzeko, eta egia da. Dirua duena burgesia

**«Errebindikazioak  
handitu ahal, burgesia  
gero eta bortitzagoa  
bihurtuko da»**

da baina hau ez dago estatuari dirurik emateko prest, estatuak «guztiona» baita.

Ikuspuntu erreformista batetik, burgesiak lapurreta ez egiteko konbentzitzea nahikoa litzateke, horra arriskua. Ikuspuntu sozialista batetik, aberastasuna dagoen tokitik hartu behar da herritarren eskura jartzeko.

**Agian aldarrikapenik politikoa  
«ekonomiaren demokratizazioa» li-  
tzateke. Aldarrikapen hau nola uler-  
tzen duzu eta nola eraman daiteke  
praktikara?**

Formalki, herritarren gehiengoak hartzen dituen erabakiak izan gogoratu, baina zehaztu egin behar da. Egungo sistema parlamentarioa gehiengo herritarren isla omen da, baina krisiaren aitzakiatan, guztion diruaz banketxeak bezalako botere



JON MINTEGIAGA

pribatuak finantziatu zirenean, herritarrok segituan jabetu ginen demokrazia burgesaren iruzurrak.

Historian zehar, klase menperatzaileek beren interesei deitu izan die demokrazia. Honela, Grezia klasikoan, demokrazia gutxiengo batentzako zegoen soilik, gehiengo esklaboa baitzen.

Abstrakzioetik ihes egin behar da. Egungo demokrazia, estatu burgesean oinarritzen da. Ekonomia demokratizatu nahi badugu, herritarren interesen alde egingo duen estatu behar da, Langile Estatu.

**Herria Abianen azken aldarrikapena  
«ekosistemaren garapen demokra-  
tikoa» da. Japonen jazotakoa ikusi-  
tzen duzu eta nola eraman daiteke  
garapena?**

Garapen kapitalista eta natura dira bateragarriak ez direnak. Kapitalismoak dena merkantilizatu behar du, natura barne. Ekoizpen sutsuei eta berehalako etekinei erantzuten die, ondorioei erreparatu gabe.

Herritarren esku balego, ia inon

ez litzateke zentral nuklearrik egongo, baina horrek berriro boterearen eztabaidara garamatza.... Mugimendu iraultzaileak, giza espeziea sortu eta parte den naturara itzuli arazi behar du, eboluzio naturalaren legeak errespetatuz.

**Zure hitzaldi eta idatziek, ideologia  
marxista dute oinarri. Herria Abian  
aldiz, gutxieneko errebindikazioen  
baitan eratutako plataforma anitza  
da. Nola uztartzen dira biak?**

Formakuntza politikoa eta teoria ahaletan, hasieran irrimoa izan daitekeen borroka gaitasuna, ideologia burgesarekin zipiritintzen hasten da denborarekin. Herria Abian bezalako plataformek, horrelako sektoreekin egiten dute lan batez ere, eta bere ordezkariak, hauen ideologia politikoa handitzeko gaitasuna izan behar dute, mugimendura gero eta jende gehiago erakarri. Leninek, *Zer egin?* liburuan, ederki azaltzen du perspektiba orokor baten baitan, agitazio mota ezberdinak astintzeak, duen eragin-kortasuna.



Izen handiko eta sari asko jasotako taldea da Zizurkilen izango dena. HITZA

## Quebecoko folk doinuez gozatzeko aukera, Atxulondon

Nicolas Pellerin eta Les Grands Hurlers taldea igandean 19:00etan Zizurkilgo kultur etxean izango da

**Eneritz Maiz** Zizurkil

2009. urtean sortutako talde gaztea den arren, Nicolas Pellerin eta Les Grands Hurlers taldeko hiru ordezkariak izen handia lortu dute. 2010. urtean sari ugari jaso dituzte, eta azkenetarikoa, musi-

ka tradizionalari emandako albumik onena osatzeagatik eskuratu dute. Lehen aldiz, bi kontzertu eskaintzera etorriko dira Gipuzkoara, eta horietako bat Zizurkilen eskainiko dute. Atxulondo kultur etxean izango da, eta sarrerak eguneari bertan jarriko dituzte salgai 3 eurotan.

Zuzenekoekin entzulea liluratzeko dute helburu, eta malabarismoak egiten dituzte musika tresna ugari baliatuz: ahotsak, biolina, gitarrak, mandolina, baxua, kontrabaxua, lehen biolina, perkusioa zangoekin, kaxa,...

## Gaur aurrekontu orokorra onartzeko proposamena jorratuko dute

Udalak osoko bilkura berezia egingo du 20:00etan; herritarrek parte hartzeko aukera dute

**Erredakzioa**

Gaur, hilak 23, udaletxeko batzar aretoan osoko bilkura berezia egingo dute udal ordezkariak. 20:00etan hasiko da, eta bertan, lehenik eta behin, aurreko bilkura-aren akta onartzeko proposamena lutzatuko dute.

Jarraian, 2011. ekitaldiari dagokion Villabonako Udalaren aurrekontu orokorra onartzeko proposamena egingo da. Ondoren, hiritar izaerako herribideen erabilera eta horietako trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautuko dituen udal ordenantzaren behin betiko onarpenaren berri emango dute. Bukatzeko, ibilgailuak eraikinetara eta orubeetara bide publikoetatik zehar sartzeko pasabideen ordenantza arautzailearen behin betiko onarpena egingo dute.

## Iraupen luzeko eski ikastaroa Sagainen eskutik

Bi egunetako ikastaroa izango da, eta 40 lagunentzako tokia dago; gaur da izena emateko azken eguna

**E. Maiz** Asteasu

Asteasuko Sagain Mendi Taldeak, iraupen luzeko eski ikastaroa antolatuko du hilaren 26 eta 27rako, Pont d'Espagnen. Izena emateko epea gaur bukatuko da, eta kiroldegiko 943 69 34 00 telefonora deituz eman daiteke.

Bi eguneko ikastaroa izango da eta 40 lagun baino ez dira onartuko. Iraupen luzeko eski ikastaroa, 10 urtetik gorakoek 35 euro, eta hortik beherakoek 29 euro ordaindu beharko dute. Bi egunetako *forfaitak* Sagain Mendi Taldeak ordainduko ditu. Kostuaren barnean, larunbateko afaria, lo lekua eta gosaria daude. Aterpea, iraupeneko pistetan bertan aurkitzen da.

Nahi duenak, eski materiala alokatzeko aukera izango du, eta Pont d'Espagnera joateko bidaia, bakoitzak bere kabuz egin beharko du.

## Iruran Korrikako Mus Txapelketa jokatuko da

**Erredakzioa** Irura

Larunbatean, Gazte Alaia elkartean, 16:30ean hasiko da Irurako Korrikako Mus Txapelketa. Bikoteak 12 euro ordaindu beharko ditu, eta bikote irabazlea Donostian jokatuko den finalean partaide izango da. Afaria eta txapelketa bana ere izango dituzte.



## harpidedun izateak badu saria zozketa

### 1 Dastatze menua

**Iriarte Jatetxean**  
2 lagunentzako dastatze menua



Jose Mari Goikoetxea, 34 behea • Berrobi • Tel.: 943-68 30 78

### 2 Bazkaria

**Sarasola sagardotegian**  
2 lagunentzako bazkaria



Asteasu • 943-69 02 83

### 3 Elastikoak

**TTAK**  
2 elastiko



Neska M  
Mutila M

### 4 Aquariuma

**Donostiako Aquariumean**  
3 lagunentzako bina sarrera



www.aquariumss.com

Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zeineskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adieraziz] Aste honetako astearte, asteazken eta osteguneari, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

## 2=1 kupoia

MOZTU eta erabili zure harpidedun txartelarekin batera\*

### DENAK TABERNA

Igaralde 4 • Tolosa • Tel.: 943 671 627

2 = 1 kupoia ogitartekoetan

Astelehenetik ostegunera



### Ogitartekoak 2=1


batek ordaindu eta bigarrengeak doan

IZEN-ABIZENAK .....  
HARPIDEDUN KODEA .....  
ERABILITAKO EGUNA .....

ARGITARATZE EGUNA: 2011-03-22  
ERABILITZEKO EPEA: hilabete

\*Harpidedun bakoitzak kupoia bakarrik aurkez dezake, ezin dira metatu.

harpidedunen  
**TXOKOA hitza** info



Amezketako Arritzaga bailaran, Aralar mendikatean, aurkitzen da meategia. Aztarnategian lana egiteko baldintzak oso korapilatsuak dira. FELIX UGARTE ELKARTEA

## Arritzagako meategian Brontze Aroko «aztarna garrantzitsuak» agertu dira

Felix Ugarte elkarteko eta Arkeolan fundazioko espeleologoek lortu dituzte aurkikuntzak

**Imanol Garcia** Amezketan

Felix Ugarte elkarteko eta Arkeolan fundazioko espeleologoek Brontze Aroko «aztarna garrantzitsuak» aurkitu dituzte Amezketako Arritzagako meategian, Aralar mendikatean. Zehazki, orain 3.500 urteko meatzaritzaren aztarnak aurkitu dituzte: zuloak, galeriak eta lubakiak. Indusketak egin dituztenek azaldu duteenez, aztarnak «komplexutasun tekniko handia» dute.

Indusketa lanak 2008tik ari dira egiten. Zonalde horretan erabilitako meatzaritza teknika «soiltasun handiz landurikoa» izan dela agerian jarri dute lan horiek. Ber-

tan aritu zirenak «eskarmentu handikoak eta gaitasuna zutenak» zirela azaldu dute. Aurkikuntzaren berri eman dute Txomin Ugaldek, Felix Ugarte elkarteko lehendakariak; Mertxe Urteagak, proiektuaren zuzendaria eta Arkeolaneke burua; Maria Jesus Aranburuk, Foru Aldundiko Kultura diputatuak; eta Jose Miguel Santamariak, Enirio-Aralar mankomunitateko lehendakariak.

Lanek iraun duten hiru urte hauetan, kobrea atera zutenaren aztarnak aurkitu dituzte hainbat lekutan. Besteak beste, ehun metroko galeria bat, eta bost eta hamar metro bitarteko galeria ugari aurkitu dituzte. Lubaki handiak ere azaldu dira; horietan handienak luzeran 500 metro eta sakonerran bost metro ditu. Karbono 14 metodoaren bitartez jakin izan da orain 3.500 urte egindako lanak izan zirela, Brontze Erdi Arokoak. Iberiar Penintsulan horrelako

meatzaritzaren dozena erdi leku ez daudela azaldu du Mertxe Urteagak.

Aurrera begira, aztarnategian lana egiteko egoera «benetan zaila» dela azaldu du Urteagak. Lubakietan dagoen lurra egonkortasunik gabekoa dela, eta galerietara sartzea oso korapilatsua dela esan du proiektuaren zuzendaria. Orain arteko lanetan, orein baten adarra aurkitu dute. Suarekin zaina bigundu ondoren, minerala ateratzeko erabiltzen zuten.

### Aztarnak gizarteratzea

Arritzagan meatzaritzak 1965 urte arte iraun zuen. Amezketako Udala indusketa lanak sustatu ditu, horiek burutzeko diru laguntzak bideratuz. Horrez gain, meategiaren beste eremu batean etxola bat eraiki berri du, XX. mendeko meatzaritza aztarnak erakusteko eta aterpe bezala erabiltzeko. Laster informazio panel bat jarriko dute.



Orein baten adarra topatu dute espeleologoek. FELIX UGARTE ELKARTEA



XX. mendeko meatzaritza tresnak ikusgai daude txabola batean. HITZA

Beste eremu batean XVIII. mendeko aztarnak daude, besteak beste, garai horretan erabilitako bi laberen hondakinak. Horietako bat eraberritu nahi da, eta meatzarien txabola bat eraiki. Jesus Iñurrita Amezketako al-

kateak azaldu duenez, «gure asmoa aurkikuntza guzti horiek ahal izanez gero gizarteratzea da, gure historiaren zati bat baita. Lehenengo pausoa XX. mendeko aztarnen inguruan egindako museo txiki hori izan da».

## Txikizioak eragitea leporatuta, gizonezko bat atxilotu dute

Hiru saltokitan erakusleihoak, eta beste batean atea apurtuta agertu ziren atzo goizean

**I. Garcia** Alegia

Ertzaintzak gizonezko bat atxilotu zuen atzo, Alegian, herriko lau tokitan txikizioak eragitea leporatuta. Arratibel farmaziako, Jo-

sune ile apaindegiko eta Txindoki janaridendako erakusleihoak, eta jubilatuen tabernako atea puskatu zituen, ustez, atxilotuak. Zehazki, farmaziako erakusleihoa estolda baten estalkiarekin puskatu zuen, jubilatuen egoitzako atea ostikada batekin hondatu zuen, eta Josune ile apaindegiko zein Larraitz auzoan dagoen Txindoki janari dendako erakusleihoak harri batekin puskatu zituen.

Herriarrek esandakoaren ara-



Arratibel farmaziako eta Josune ileapaindegiko erakusleihoak apurtuta. I. GARCIA



bera, gertaerak astelehen eta astearte bitarteko gaueko 05:00ak inguruan izan ziren. Farmaziaren gaineko bizilagunek zaratak

entzun zituzten ordu horietan, eta kalera begiratzerakoan gizonezko bat ikusi zuten. Ertzaintzaren gaineko bizilagunek zaratak

gertaera argitzeko ikerketa lanean ari dira. Kaltetutako lau saltokietako jabeek jakinarazi zuten, ez zieten ezer lapurtu.

## Udalak errentaren aitorpena euskaraz egiteko gonbita egin du

Apirilaren 18an hasi eta ekainaren 25ean amaituko da errentaren gaineko aitorpena egiteko epea

**Erredakzioa** Ibarra

Ibarrako Udaleko Euskara eta Hezkuntza sailak errentaren gaineko aitorpena euskaraz egiteko gonbita luzatu die herritar euskaldun guztiei. Euskararen erabilerari bizitza publikoko arlo guztietara zabaltzeko asmoz egin dute.

Era honetan, Ibarrako Udalak bat egin du Tolosaldea bailaran euskararen erabilera bultzatzeko sustaturiko eta abian jarritako ekimenarekin. «Euskara normalean erabiltzen duten zergadunek 2010. urteari dagokion errenta aitorpena hizkuntza horretan egiteko» eskaria egin die udalak.

Errentaren gaineko aitorpena egiteko kanpaina apirilaren 18an hasiko da, eta ekainaren 25ean amaituko da, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun sailak aurreratu zuenez.

## Irudia ◊ Leaburu-Txarama



## INFO7-RENTZAT BERTSOAK

Pasa den ostiralean, Leaburu-Txaramako herritarrek Info7 Irratiaren aldeko bertso afari batean elkartu ziren. Bertan izan ziren Jokin Uranga eta Amets Arzallus bertsolariak. Guztira 40 lagun inguru elkartu ziren Zazpi Bide elkartearen, eta 350 euro bildu zituzten Info7 irratiantzat. Giro ederrean pasa zuten gaua. HITZA

## Aurtengo XVIII. Bertso Bazkariak zenbait berrikuntza izango ditu

Saioalarunbat honetan izango da; izena herriko karteletan edo email bidez eman daiteke

**Maier Ugartemendia** Lizartza

Aurten, XVIII. Bertso Bazkaria egingo dute Lizartzan. Lizartzarren urteroko hitzorduak zenbait berrikuntza izango ditu, hala ere.

Orain arte urtero afora egiten zuten arren, aurten bazkaria egingo dute. Eta, hori ez da izango aurtengo berrikuntza bakarra. Orain arte Txirrita elkartearen egin izan dute bertso saioa, baina, aurtengoan herriko Goikoetxea sagardotegira joango dira. Aurten XVIII. bertso saioa izango da. Bertan izango dira, urtero bezala, Xebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariak. Horrez gain, Ma-



Bertso bazkarian izango dira: Lizaso, Egaña eta Manolo soinu-jolea. HITZA

nolo soinu-jolea, Kaxianoren anaia, ere bertan izango da, azken 15 urtetan bezala. 81 urte dituen arren, ez du hutsik egiten bertsozaleekin duen zitarra.

Izena edonork eman dezake he-

rriari zehar ipinita dauden karteletan, edo email bidez, [aztrazil@gmail.com](mailto:aztrazil@gmail.com) helbidean. Antolatzaileek aurten egindako aldaketekin, jende gehiago animatzea espero dute.

## → Laburrak

### Zuhaitzak landatuko dituzte, Zuhaitz Egunean

**IRURA** ◊ Larunbat honetan, Zuhaitz Eguna ospatuko dute Iruran. 16:00etan herriko plazan bildu ondoren, zuhaitzak landatzen parte hartzen dutentzera joango dira. Zuhaitzak landatzen parte hartzen dutenek, askari bat jasoko dute, egindako lanaren ordainetan.

### Atekarock-eko sarrerak salgai daude eskualdean

**LEITZA** ◊ Apirilaren 2an izango da Atekarock jaialdia. Bertan izango dira Berri Txarrak, Su Ta Gar, Gose, Vendetta, Kop eta Bad Sound System taldeak. Kontzertuak 20:30ean hasiko dira. Sarrerak 17 euro kostako dira aurretik erosiz gero, eta 20 euro bertan. Eskualdean hiru lekutan jarri dituzte salgai oraingo: Leitzako Torrea herrikoan, Tolosako Denak tabernan, eta Villabonako Maxolan.

### Gazteek eskalatzen ikasteko aukera, Leitzan

**LEITZA** ◊ Leitzako kiroldegia eskalada ikastaro bat antolatuko du, 10-16 urte bitarteko neska-mutilei zuzendua. Ikastaroa bost larunbatetan izango da: hilaren 26an, apirilaren 2, 9 eta 16an, eta maiatzaren 7an. 09:00etan hasi eta 13:00etan amaituko da. Izena Leitzako kiroldegian eman behar da. Epea hilaren 25ean amaituko da. Informazio gehiago nahi izanez gero 948 510 719ra deitu.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info) / Tel.: 943-65 56 95

**HILETAREN BALIOA**  
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakartzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskuraziona da galduta duzuna,  
baina laguntza eskaintzen dizugu dena erazagarria izan dadin.

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

902 402 900

[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzalde:** 687 410 118. leitzalde@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**  
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketza, Anoeta, Areso, Belauntza, Berastegi, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Agenda**

**DEIALDIAK**

- **Aduna.** Asvineneak afrikar dantzen ikastaro trinkoa antolatatu du apirilaren 2rako. Ikastaroak 20 euro balio du, baina bazkide direnek 15 euro ordaindu beharko dute. Tailerra Ainhoa Agirrezabalak emango du, eta perkusioa zuzenean joko dute. Izena [www.asvinenea.com](http://www.asvinenea.com) webgunean edo 665 738 081 telefonora deituta eman daiteke.
- **Aiztondo.** Aiztondo Mankomunitateak Artziniegara joateko irteera antolatu du martxoaren 29rako. Irteeran Larraul, Alkiza, Zizurkil eta Adunako jubilatuek hartu dezakete parte. Izena emateko 943 69 39 30 telefonora deitu behar da.
- **Leitza.** Oialde Elkartean bazkide berriak sartzeko epea apirilaren 10ean bukatuko da. Izena emateko deitu 676 29 79 80 (Amaia) telefonora.
- **Ibarra.** Txontxo udal ludotekak begiraleak behar ditu udarako. Eskaera egiteko derri gorrezkoa da begirale titulua eta EGA izatea. Ibarretrek lehen tasuna izango dute. Curriculumak [ibarra@ikastola.net](mailto:ibarra@ikastola.net)-era bidali behar dira '2011ko begiraleak' gaia zehaztuz. Apirilaren 8a da eskaerak egiteko azken eguna.
- **Tolosa.** OHOeko lehenengo promozioko 8. maila Jesusen Alaben ikastetxean egin zutenek (1974-1975) maiatzaren 14an ikaskideen bazkaria izango dute. Bazkaria Bide Bide jate txean izango da. Izena apirilaren 30a baino lehen eman behar da, eta 50 euro sartu 2101 0081 19 0012775102 kontuan. Informazio gehiagorako eta izena emateko deitu 649 16 30 53 telefono zenbakira.

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
- **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. 112.

HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Irudia Tolosa**



**IZOZTUTA, ARRAZAKERIA SALATZEKO**

Herenegun Arrazakeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna izan zen, eta Tolosan, Tolosaldea Garatzen eskutik, aniztasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako *flashmob*-a egin zuten Korreo eta Letxuga kaleen artean. 26 pertsona 5 minu-

tuz izoztu ziren «arrazakeriari stop esateko», Tolosaldea Garatzenek azaldu duenez. Era berean, Ibarra kultur etxean SOS Arrazakeria elkartearen *Ni ere pertsona* erakusketa ikusi daiteke apirilaren 15a bitarte. LURKIZU

**Agurrak**

**AGURRAK**  
943-65 56 95  
[tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...



**Hartu aisia BERRIekin**

**Egin harpidedun eta jaso 2 lagunentzako ERLAXATZEKO BONUA OPARI**

**EZAUGARRIAK:**

- Talasoterapia zirkuitua
- Erlaxatzeko masajea
- Igande arratsaldetik ostiral eguerdira erabil daiteke

**Harremanetarako:**  
943-30 43 45 • [harpidetza@berria.info](mailto:harpidetza@berria.info)

aukera ezazu, **BIZI euskaraz berria**

**bestso saioa**  
*bestso saioa*

BERTOLARIK  
BERAT GARZUMENDI  
JON MAIA  
JOSER HENDILUBE  
MIREN AMURIZ  
AMETS ARBALLUS  
SUSANA CAGINA  
ON TARTALDEA  
UNAN ELIZAGO

EROSILAN 18

Berria eta hitza hitza, hitza hitza hitza 943 46 72 78